

GOBERNANTZA SOZIOSANITARIOAREN DEKRETUAREN HEDAPENA EBALUATZEKO TXOSTENA

2023ko abuztuaren 14a

OSASUN SAILA
Osasun Sailburuordetza
Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD
Viceconsejería de Salud
Dirección Atención Sociosanitaria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Aurkibidea

1. SARRERA	3
2. ARRETA SOZIOSANITARIOKO ZUZENDARITZAK GOBERNANTZA SOZIOSANITARIOAREN DEKRETUA EZAGUTARAZTEKO ABIATU DITUEN EKINTZAK	5
3. METODOLOGIA. GOBERNANTZA SOZIOSANITARIOAREN HEDAPENA EBALUATZEKO DISEINUA	9
4. GOBERNANTZA SOZIOSANITARIOAREN HEDAPENA EBALUATZEKO GALDETEGIARI EMANDAKO ERANTZUNEN AURKEZPENA	15
4.1. ERANTZUNEN KARAKTERIZAZIOA, KONTSULTATUKO PROFESIOALEN LURRALDE HISTORIKOAREN, KUDEAKETA-MAILAREN ETA SISTEMAREN (OSASUN SISTEMA EDO GIZARTE ZERBITZUEN SISTEMA) ARABERA	15
4.2. GALDETEGIKO ERANTZUNEN EMAITZAK	17
4.2.1. Gobernantza Dekretuaren ezagutza-maila	17
4.2.2. Kontsultatutako profesionalak Gobernantza Dekretuaren hedapenean izandako inplikazioa	18
4.2.3. Gobernantza soziosanitarioaren agente gisa inkestatutakoek abiatutako ekintzen ondoriozko lorpenak	19
4.2.4. Gobernantza soziosanitarioko kontsulta- eta partaidetza-organoak eratzeko prozesuaren balorazioa	20
4.2.5. Gobernantza soziosanitarioko koordinazio-figurak izendatzeko prozesuaren balorazioa	21
4.2.6. Gobernantza soziosanitarioaren oraingo hedapenaren arabera epe laburrean hobetu daitezkeen alderdien identifikazioa	22
4.2.7. Gobernantza soziosanitarioaren hedapenean epe luzera hobetu daitezkeen alderdien identifikazioa	24
4.2.8. Gobernantza soziosanitarioa hedatzeko prozesuan nabarmentzekoak diren alderdien identifikazioa	25
4.2.9. Gobernantza Dekretuaren hedapenean informazio- eta publizitate-lanak egiten eta/edo parte hartzen laguntzea, komunikazio-ekintzen eta Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak garatutako bestelako ekintzen bidez	26
4.2.10. Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak sustatu dituen eta Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua hedatzeko baliagarriak izan diren egitasmoen identifikazioa	27
4.2.11. Ekosistema soziosanitarioko beste agente batzuen laguntza, informazioa edukitzeko	28
4.2.12. Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaz informatzeko, haren publizitatea egiteko eta hura hedatzeko orduan hobetu ditzakeen alderdiak	29
4.2.13. Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaz informatzeko, haren publizitatea egiteko eta hura hedatzeko lana hobetu dezan iradokitako ekintzak	30
4.2.14. Ekosistema soziosanitarioko beste agente batzuek laguntzea, Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaz informatzeko, haren publizitatea egiteko eta/edo hura hedatzean parte hartzeko	30
4.2.15. Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren hedapenak epe labur-ertainera begira dituen erronka nagusiak	32
5. EAEKO GOBERNANTZA SOZIOSANITARIOAREN HEDAPENARI BURUZKO ONDORIOAK	34
6. GOMENDIOAK	41
ERANSKINA	42

GOBERNANTZA SOZIOSANITARIOAREN DEKRETUAREN HEDAPENA EBALUATZEKO TXOSTENA

1. Sarrera

2022ko abenduaren 22an, [150/2022 Dekretua onartu zen, abenduaren 7koa, Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzkoa](#). Dekretuan, hiru hilabeteko epea ezarri zen kontsulta- eta partaidetza-organoak eratzeko eta EAEko gobernantza soziosanitarioa koordinatzeko figurak izendatzeko.

Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua argitaratuta (2022ko abenduan), arauzko zenbait aldaketa egin ziren, eta, besteak beste, [Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren apirilaren 5eko 69/2011 Dekretua](#) indargabetzea eta, ondorioz, ASSEK desegitea planteatu zen, [abenduaren 7ko 150/2022 Dekretuak](#) (Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzkoak) onetsitako arau-esparruarekin bat etorrita eratu zedin organo hori.

Beraz, dekretua 2022ko abenduan argitaratu bazen ere, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua 2023ko otsailaren 6an berriro eratzeak abiatu zuen gobernantza soziosanitarioa hedatzeko prozesua; zehazki, osaera berri hark hasi zuen kontsulta- eta partaidetza-organoak eratzeko eta hiru lurralde historikoetako eta kudeaketa-maila bakoitzeko koordinazio-figurak izendatzeko aldia.



Hala, 2023ko otsailaren 6an, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua eratzearen kariaz, ASSEKek **Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua Komunikatzeko Estrategia** aurkeztu eta onetsi zuen, EAEn arloan eskumenak dauzkaten erakunde eta antolakundeei bideratuta dagoena.

Urrats horren asmoa izan zen, hain zuzen ere, ASSEK osatzen duten erakunde guzti-guztiek Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua goitik beherantz komunikatzeko orduan parte har zezaten sustatzea.

Horri begira, dokumentuak hartzaileak identifikatu zituen (Gizarte Zerbitzuen Sistemaren eta Osasun Sistemaren barruan), Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua ezagutarazteko eta ezagutzeko alderdi aktibo eta laguntzaile gisa, eta **balibideei, rolei, eginkizunei eta ardurei buruzko oinarritzko informazio erraza jaso zuen, arreta soziosanitario koordinatuaren hedapena eraginkorra eta sarean izan zedin**.

Horretaz gainera, EAEn premia soziosanitarioen arretan inplikaturik dauden erakunde eta antolakundeei (bereziki, Osasun Sistemako eta Gizarte Zerbitzuen Sistemako profesionalei) Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua jakinarazi eta ezagutarazteko lana errazte aldera, [Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua. Komunikazio-Gida](#) egin zuen Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak (ASSEKek 2023ko otsailaren 6an aurkeztu eta onetsi zuen).



OSASUN SAILA

Osasun Sailburuordetza
Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD

Viceconsejería de Salud
Dirección Atención Sociosanitaria



Gidak, zeina Arreta Soziosanitarioaren Atarian argitaratuta baitago eta edonork kontsultatu nahiz ezagutarazi baitezake, **mailaz mailako hurbilketa egiten du funtsezko alderdien definiziora**, eta, besteren artean, honako gai hauek ukitzen ditu: **arreta soziosanitarioa, gobernantza soziosanitarioa, gobernantza horren eragile instituzionalak**, lan-dinamikak bideratzen dituzten **balioak**, EAEko gobernantza soziosanitarioaren **ezaugarri nagusiak** eta **governantza horren antolaketa, funtsezko bi elementutan oinarritua: kontsulta- eta partaidetza-organook eta koordinazio soziosanitarioko figurak**.

Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilu berria eratu eta gero, behin Gobernantza Dekretua ezagutarazteko **estrategia** eta **gida** onetsi ondoren, Gobernantza Dekretua hedatzeko entitate erantzunkide bihurtu ziren Kontseiluaren barruan arreta soziosanitarioaren arloan eskumenak dauzkaten erakundeak; zehazki, aipatutako epean koordinazio soziosanitarioko organook eratzea sustatzeko eta EAEko koordinazio soziosanitarioko figurak izendatzen laguntzeko erantzunkide.

Kontsulta-organook eratzeke eta koordinazio-figurak izendatzeko legezko epea igarotakoan, [Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategian \(2021-2024\)](#) gobernantza soziosanitarioa garatzeko hartu ziren konpromisoetan oinarrituta, Osasun Sailaren Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak bitarteko ebaluazio-prozesu bat sustatu zuen 2023ko maiatzetik ekainera, EAEko gobernantza soziosanitarioko elementuak eratzeke eta izendatzeko informazio-, publizitate- eta laguntza-neurriei buruzkoa (aipatu den dekretuan jasotzen dira elementuok, eta txosten honen xede dira).




OSASUN SAILA
Osasun Sailburuordetza
Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD
Viceconsejería de Salud
Dirección Atención Socio-sanitaria

2. Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua ezagutarazteko abiatu dituen ekintzak


Gobernantza soziosanitarioaren eragilea den heinean, Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak hainbat ekintza abiatu ditu gobernantza hedatzea sustatzeko.

1. irudia Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua argitaratu zenetik (2022ko abenduaren 22tik) berori hedatzeko gauzatu diren ekintzak.



Iturria: Guk geuk egina


2. irudia Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua argitaratu zenetik (2022ko abenduaren 22tik) berori hedatzeko gauzatu diren ekintzak, ordena kronologikoan.



Iturria: Guk geuk egina

Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua Komunikatzeko Estrategia eta **Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua. Komunikazio-Gida** osatzeko xedez, Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak askotariko dokumentuak idatzi ditu (eragileak, informaziozkoak...), ordena kronologikoan, Gobernantza Dekretua hedatzeko laguntzeko:

- Hainbat **fluxugrama, kontsulta- eta partaidetza-organo guztien eraketa-faseak eta koordinazio-figuren izendapena azaltzeko** (2023ko urtarrilaren 27a).
- Autonomia- eta lurralde-mailetako koordinaziorako barne-dokumentu bat, kontsulta- eta partaidetza-organoak beranduenez ere 2023ko martxoaren 23an eratzeko eta koordinazio-figurak epe berean izendatzeko erabakiak hartu dituzten erakundeak eta erabakien sekuentzia jasotzen dituen**. Honako hauek jasotzen ditu: **urratsen laburpen bat**, 150/2022 Dekretuak ezarritako legezko epearen arabera **kronograma bat eta organoen eraketaren eta izendapenen publizitateari buruzko gogoetak** (2023ko urtarrilaren 27a).



3. **Osasun-eremuko erreferente soziosanitarioak izendatzeko eredu bat**, Osakidetzaeren Erakunde Sanitario Integratuetako eta Osasun Mentaleko Sareetako gerentziek errazago izendatu eta jakinarazi ditzaten erreferente soziosanitarioak (2023ko otsailaren 14a).



4. Osasun-eremuan **Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioa izendatzeko ebazpen-eredua**, Arreta Soziosanitarioko zuzendariak osasun-eremuko Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioan eginkizunak izango dituzten pertsonak izendatu eta jakinarazi ditzan (2023ko otsailaren 14a).



5. **Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak eratzeko bilera-deialdiaren eredua**, Lurraldeko Koordinazio Soziosanitariorako egindako laguntza-dokumentu gisa, Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak eratzeko lehenengo bileraren deialdia egiten laguntzeko (2023ko otsailaren 14a).



6. Osasun-eremuan (Osakidetzaeren Erakunde Sanitario Integratuetako eta Osasun Mentaleko Sareetako gerentziek) eta gizarte-zerbitzuen eremuan (toki-erakundeek: EAEko udalerriek eta/edo mankomunitateek) **erreferente soziosanitarioak izendatzeko urratsak jasotzen dituen barne-dokumentu bat**, foru-, udal- edo mankomunitate-erakunde bakoitzean eginkizun horiek beteko dituzten profesional izendatuen aurretiazko identifikazioa ere jasotzen duena, bat etorrira Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzari 2021ean eta 2022an emandako informazioarekin (2023ko martxoaren 1a).



7. **Lurraldeko Koordinazio Soziosanitariorako laguntza-dokumentu bat, dekretuaren edukien laburpena duena:**

Aurrekariak; Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren ekarpen nagusiak; arreta soziosanitarioaren definizioa, gobernantza soziosanitarioaren eragile instituzionalak; EAEko gobernantza soziosanitarioaren antolaketa; gobernantza soziosanitarioko organo eta figuren ezaugarri nagusiak; kontsulta- eta partaidetza-organok; koordinazio-figurak; Euskadiko Etika Batzordeak Koordinatzeko Batzordea eta Euskadiko Baliabide Soziosanitarioen Katalogoa (2023ko martxoaren 6a).



8. **Lurraldeko Koordinazio Soziosanitariorako laguntza-dokumentu bat, Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua hedatzeko planteatu den goitik beherako komunikazio-estrategiaren oinarriko alderdiak laburbiltzen dituen, hiru xede-talde handi bereizita (Gobernantza Dekretua egituratu eta hedatzeko behar diren ardura- eta inplikazio-mailaren arabera) (2023ko martxoaren 6a).**



9. **Lurraldeko Koordinazio Soziosanitariorako egindako edukien gida bat, Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak eratzeko bileran lagungarria izan dadin. Honako hauek biltzen ditu: Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren inguruabarrak modu laburrean; batzorde soziosanitarioen izaeraren, eginkizunen, funtzionamenduaren eta eraketaren aurkezpena; erreferente soziosanitarioaren figura modu laburrean; Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak onesteko proposatu den barne-araudiaren edukien azalpena; eta Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak eratzeko eta funtzionatzeko orduan zalantza gehien sor ditzaketen alderdien lanketa (2023ko apirilaren 19a).**



10. **Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak erregulatzeko barneko funtzionamendu-erregelamenduaren proposamena (2023ko martxoaren 20a).**



11. **Laguntzeko eta lan egiteko barne-dokumentu bat, Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak (III) osatzeko inguruabarrak eta diagnostikoa jasotzen dituen, arreta berezia jarriz Eskualdeko Batzorde Soziosanitario bakoitzeko ordezkartzen eraketan (osasun-eremua eta gizarte-zerbitzuen eremua) eta kontuan hartuta udalek, mankomunitateek, foru-aldundiak eta Osakidetzaaren Erakunde Sanitario Integratuek eta Osasun Mentaleko Sareek Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak eratzeko bileraren deialdia egin aurretiko urrats gisara izendatutako erreferente soziosanitarioak (2023ko apirilaren 18a).**



3. Metodologia. Gobernantza soziosanitarioaren hedapena ebaluatzeko diseinua

Gobernantza soziosanitarioaren kontsulta- eta partaidetza-organoak eratzeko eta figurak izendatzeko hiru hilabeteko legezko epea amaitu ondoren (2023ko martxoaren 23an), bat etorrita Gobernantza Dekretuak ezarritakoarekin, Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak konpromisoa hartu du Gobernantza Dekretuaren hedapena ebaluatzeko eta prozesu horretan hobetu daitezkeen alderdiak nahiz agertu diren zailtasunak identifikatzeko.

Ebaluazio-prozesurako, Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak **galdetegi** bat diseinatu du, **helburu** hauekin:

1. **Dekretua eta EAEko gobernantza soziosanitarioko elementuak (organoak eta figurak)** hedatzeko ardura izan duten erakundeek haien gainean zenbateko ezagutza duten zehaztea.
2. **Erakundeek dekretua benetan hedatzeko egin dituzten informazio- eta publizitate-ekintzak** identifikatzea.
3. **Dekretuaren hedapenaren erakunde erantzunkideek** gobernantza soziosanitarioa koordinatzeko figurak izendatzea eta kontsulta- eta partaidetza-organoak eratzeko abiatu dituzten **bestelako ekintzak** identifikatzea.
4. EAEko gobernantza soziosanitarioa ondo egituratu dadin, **etorkizunera begira aintzat hartu behar diren ekintza zuzentzaileak** identifikatzea.
5. **Kontsulta- eta partaidetza-organoek eta koordinazio-figurek funtzionatzeko gomendioak** ematea.

Galdetegia ele bitan dago, **15 item** dauzka, eta askotariko galderak konbinatzen ditu: galdera irekiak, 10 puntuko eskala eskaintzen duten galderak, erantzun itxi dikotomikokoak eta hainbat aukeretakoak. **Galdetegia** lagina osatzen duten profesionalen **helbide elektronikora** igorri da (95 profesional dira).

Halaber, EAEn arreta soziosanitarioaren eremuan eskumenak dauzkaten erakundeen artean, honako hauek joko dira **hedapenaren enfitate erantzunkidetzat**:

- Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua.
- Enplegu, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila (Eusko Jaurlaritza).
- Osasun Saila eta, zehazki, Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza).
- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua eta, zehazki, Erakunde Sanitario Integratuak eta Osasun Mentaleko Sareak.

- Arabako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- EUDEL - Euskadiko Udalen Elkarte, lehen arretako gune eta EAEko Gizarte Zerbitzuen Sistemarako sarbidea diren mankomunitate eta udal guztiei erreferentzia eginez.

Galdetegiaren agente hartzaileak hautatzeko, **komentziazko laginketa** egin da (**ez probabilitatezkoa**), Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua hedatzeko prozesuan ardura-maila desberdinak dauzkaten ekosistema soziosanitarioko profesionalak (parte-hartzaileak) aukeratu ahal izateko.

Hala, **95 profesionalak osatu dute lagina**, eta bermatu egin da hiru lurralde historikoetan kudeaketa-maila desberdinetako (makro, meso eta mikro mailetak) erakundeak ordezkatzea.

1. taula Laginaren osaeraren banaketa (lurralde-eremua eta kudeaketa soziosanitarioaren eremua aintzat hartuta hautatutako profesional soziosanitarioen kopuruaren eta ehunekoaren arabera).

Lurralde-eremua	EAE	%	Araba	%	Bizkaia	%	Gipuzkoa	%	Guztira	%
Kudeaketa-eremua										
Makro maila	5	% 5,4	6	% 6,3	6	% 6,3	6	% 6,3	23	% 24,3
Meso maila	-	-	4	% 4,2	4	% 4,2	4	% 4,2	12	% 12,6
Mikro maila	-	-	6	% 6,3	27	% 28,4	27	% 28,4	60	% 63,1
Guztira	5	% 5,4	16	% 16,8	37	% 38,9	37	% 38,9	95	% 100,0

Iturria: Guk geuk egina

2. taula. Laginaren osaeraren banaketa (sistema eta lurralde historikoa aintzat hartuta hautatutako profesional soziosanitarioen kopuruaren eta ehunekoaren arabera).

Lurralde-eremua	EAE	%	Araba	%	Bizkaia	%	Gipuzkoa	%	Guztira	%
Sistema										
Osasun Sistema	1	% 1	9	% 9,5	13	% 13,7	13	% 13,7	36	% 37,9
Gizarte Zerbitzuen Sistema	4	% 4,2	7	% 7	24	% 25,3	24	% 25,3	59	% 62,1
Guztira	5	% 5,4	16	% 16,8	37	% 38,9	37	% 38,9	95	% 100

Iturria: Guk geuk egina

Laginaren hautaketan ikusten denez, goitik beherako komunikazio-estrategiak (makro mailatik meso eta mikro mailataranzkoak) bi sistemetan (Osasun Sistematan eta Gizarte Zerbitzuen Sistematan) zenbaterainoko arrakasta izan duen ezagutzea zen asmoa, baita estrategia horrek eremu mikroan/asistentzian duen eragina ezagutzea ere, eta interes

berezia jarri da Gizarte Zerbitzuen Sistemari, toki-eremuko erakunde gehiago (udalak eta zerbitzuen mankomunitateak) inplikatu behar direlako Gobernantza Dekretuaren hedapenean.

2023ko maiatzaren 19an, galdetegia bidali zitzaien hautatutako 95 profesionali, eta, 2023ko ekainaren 7an, mezu bat bidali zitzaien **emaitzak bidaltzeko epea 2023ko ekainaren 15ean bukatuko zela gogorarazteko**.

Kontsulta-aldia zertxobait atzeratu zen, hasiera batean 2023ko maiatzean egitea baitzen asmoa. Hala, aurreikusitako data 15 egunez atzeratu zen; batez ere, Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuan ezarritako kontsulta- eta partaidetza-organoen eraketan berandutzeagatik.


Hona hemen organoak eratzeko datak, baita koordinazio-figurak izendatzekoak ere, Gobernantza Dekretuaren arabera (2022):

3. irudia ASSEK-en eraketa-data eta izendapen elkartuak (2023).

Gobernantza Soziosanitarioaren 150/2022 Dekretua							
	abe-22	urt-23	ots-23	mar-23	api-23	mai-23	eka-23
150/2022 Dekretua indarrean jartzea	23/12/23			23/3/23			
ASSEK eratzea			23/2/6				
Osasun Sailaren ordezkariak izendatzea			23/2/6				
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren ordezkaria izendatzea			23/2/6				
AFaren ordezkaria izendatzea				23/3/14			
BFaren ordezkaria izendatzea				23/3/8			
GFaren ordezkaria izendatzea				23/3/21			
EUDELen ordezkaria izendatzea				23/3/31			
Koordinatzaile soziosanitario autonomikoaren (Osasuna) izendapena berrestea							?
Koordinatzaile soziosanitario autonomikoa (Gizarte Zerbitzuak) izendatzea.							?

Iturria: Guk geuk egina

4. irudia Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioko figurak izendatzea eta erreferente soziosanitarioak hautatzea (2023).



Iturria: Guk geuk egina¹

¹ Oharra*: Bidasoko ESla izan da erreferente soziosanitarioak izendatzen azkena; hortaz, izendapen horiekin, amaitutzat jo da EAEko Osasun Sistemako Erakunde Sanitario Integratuetan eta Osasun Mentaleko Sareetan erreferente soziosanitarioak izendatzeko prozesua.

5. irudia Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoei dagozkien Eskualdeko Kontseilu Soziosanitarioak eratzeko eta izendapenak egiteko egunak (2023).

Gobernantza Soziosanitarioaren 150/2022 Dekretua							
	abe-22	urt-23	ots-23	mar-23	api-23	mai-23	eka-23
Lurralde Kontseilu Soziosanitarioak eratzea							
Kideak izendatzea (Osasun Saila)				23/3/28			
Presidentea eta AFAko 3 ordezkar hautatzea						23/5/9	
Presidentea eta BFAko 3 ordezkar hautatzea					23/4/4		
Presidentea eta GFAko 3 ordezkar hautatzea							?
EUDELeke 3 ordezkar hautatzea (lurralde historiko bakoitzeko bana)							
Arabako Lurralde Kontseilu Soziosanitarioa eratzea						23/5/10	
Bizkaiko Lurralde Kontseilu Soziosanitarioa eratzea					23/4/18		
Gipuzkoako Lurralde Kontseilu Soziosanitarioa eratzea							?

Iturria: Guk geuk egina

6. irudia Lurralde Batzorde Soziosanitarioak eratzeke egunak (2023).

Gobernantza Soziosanitarioaren 150/2022 Dekretua	abe-22	urt-23	ots-23	mar-23	api-23	mai-23	eka-23
Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak							
Osasun Sistemako kideak hautatzea				23/3/29 *Bidasoko ESla			
Gizarte Zerbitzuen Sistemako kideak hautatzea (2023-04-18ra arte)							Araba: % 100 Bizkaia: % 85,8 Gipuzkoa: % 82,95
Arabako Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioa eratzea						23/5/8	
Arabako Errioxako Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioa eratzea						23/5/4	
Barakaldo-Sestaoko Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioa eratzea						23/5/23	
Barrualde-Galdakaoko Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioa eratzea						23/6/27	
Bilbo-Basurtuko Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioa eratzea						23/6/14	
Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioa eratzea						23/6/13	
Uribeko Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioa eratzea						23/5/24	
Bidasoko Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioa eratzea						23/5/8	
Debabarreneko Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioa eratzea						23/5/29	
Debagoieneko Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioa eratzea						23/5/29	
Donostialdeko Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioa eratzea						23/5/8	
Goierni-Urola Garaiko Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioa eratzea						23/5/10	
Tolosaldeko Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioa eratzea						23/5/22	

Iturria: Guk geuk egina

4. Gobernantza soziosanitarioaren hedapena ebaluatzen galdetegiari emandako erantzunen aurkezpena

4.1. Erantzunen karakterizazioa, kontsultatuko profesionalen lurralde historikoaren, kudeaketa-mailaren eta sistemaren (Osasun Sistema edo Gizarte Zerbitzuen Sistema) arabera

Ekainaren 15ean amaitu zen bidalitako 95 galdetegiari erantzuteko epea. Guztira, 21 erantzun baino ez ziren jaso; beraz, erantzun-tasa % 22koa besterik ez zen izan.

Erantzunak honela sailka ditzakegu, lurralde-eremuaren eta kudeaketa-eremuaren arabera:

3. taula Profesional soziosanitarioengandik jasotako erantzunen kopuruaren eta ehunekoaren banaketa, lurralde-eremua eta kudeaketa soziosanitarioaren eremua aintzat hartuta.

Lurralde-eremua	EAE	%	Araba	%	Bizkaia	%	Gipuzkoa	%	Guztira	%
Kudeaketa-eremua										
Makro maila	1	% 4,8	3	% 14,3	0	% 0,0	2	% 9,5	6	% 28,6
Meso maila	-	-	2	% 9,5	2	% 9,5	2	% 9,5	6	% 28,6
Mikro maila	-	-	1	% 4,8	7	% 33,3	1	% 4,8	9	% 42,9
Guztira	1	% 4,8	6	% 28,6	9	% 42,9	5	% 23,8	21	% 100,0

Iturria: Guk geuk egina

Jasotako erantzunen lurralde-banaketa arabera, Bizkaiko lurralde historikotik jaso da gehien; bereziki, kudeaketa-maila mikroan kokatutako profesionalengandik. Kudeaketa-maila makroan, Araba izan da erantzun gehien bidali duen lurralde historikoa. Gipuzkoa izan da erantzunen ehuneko txikiena izan duen lurralde historikoa.

Jasotako erantzunak profesionalen **kudeaketa-mailaren arabera** sailkatuz gero, gehienak mikro mailan daudela ikusiko dugu. Meso eta makro mailek erantzunen ehuneko bera izan dute, eta nabarmentzekoa da Bizkaiko lurralde historikoan ez dela erantzunik jaso kudeaketa-maila makrotik.

Kasuan kasuko **sisteman (Osasun Sistema edo Gizarte Zerbitzuen Sistema) eta lurralde-eremuan oinarrituta** banatzen baditugu erantzunak, azpimarratzekoa da ez dela erantzunik jaso Gizarte Zerbitzuen Sistemaren makro mailatik, proiektatutako laginaren % 4,2 izan arren. Bizkaiko lurralde historikoak eman du erantzunen ehuneko handiena, eta antzekoa izan da bi sistemetatik jasotako erantzunen banaketa. Pareko egoeran daude Arabako lurralde historikoan, Osasun Sistematik eta Gizarte Zerbitzuen Sistematik jasotako erantzunek ehuneko berbera baitute. Gipuzkoako lurralde historikoak izan du Osasun Sistematik jasotako erantzunen ehunekorik handiena, baina ez da inolako ekarpenik egin Gizarte Zerbitzuen Sistematik. Gizarte Zerbitzuen Sistematik jasotako erantzunen ehuneko handiena, berriz, Bizkaiko lurralde historikoak izan du.

4. taula Profesional soziosanitarioengandik jasotako erantzunen kopuruaren eta ehunekoaren banaketa, sistemaren eta lurralde historikoaren arabera.



OSASUN SAILA
Osasun Sailburuordetza
Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD
Viceconsejería de Salud
Dirección Atención Sociosanitaria

Lurralde-eremua	EAE	%	Araba	%	Bizkaia	%	Gipuzkoa	%	Guztira	%
Sistema										
Osasun Sistema	1	% 4,8	3	% 14,3	4	% 19,0	5	% 23,8	13	% 61,9
Gizarte Zerbitzuen Sistema	0	% 0,0	3	% 14,3	5	% 23,8	0	% 0,0	8	% 38,1
Guztira	1	% 4,8	6	% 28,6	9	% 42,9	5	% 23,8	21	% 100,0

Iturria: Guk geuk egina

Hautatu den laginarekiko erantzunen banaketan, lurralde-eremuaren eta kudeaketa-mailaren arabera, deigarria da Bizkaiko lurralde historikoko mikro mailatik jasotako erantzunen ehunekoa: lagina osatzen duten profesional guztien % 7,4 dira, eta Bizkaiko lurralde historikoan kudeaketa-maila horretan laginketa egiteko proposatutako profesional kopuruaren % 25,6.

5. taula Profesional soziosanitarioengandik jasotako erantzunen kopuruaren eta ehunekoaren banaketa, lurralde-eremuaren eta kudeaketa soziosanitarioaren eremuaren arabera, lagina osatzen duten profesional guztien kopuruarekiko.

Lurralde-eremua	EAE	%	Araba	%	Bizkaia	%	Gipuzkoa	%	Guztira	%
Kudeaketa-eremua										
Makro maila	1	% 1,1	3	% 3,2	0	% 0,0	2	% 2,1	6	% 6,3
Meso maila	-	-	2	% 2,1	2	% 2,1	2	% 2,1	6	% 6,3
Mikro maila	-	-	1	% 1,1	7	% 7,4	1	% 1,1	9	% 9,5
Guztira	1	% 1,1	6	% 6,3	9	% 9,5	5	% 5,3	21	% 22,1

Iturria: Guk geuk egina

6. taula Profesional soziosanitarioengandik jasotako erantzunen kopuruaren eta ehunekoaren banaketa, sistemaren eta lurralde historikoaren arabera, lagina osatzen duten profesionalen guztizko kopuruarekiko.

Lurralde-eremua	EAE	%	Araba	%	Bizkaia	%	Gipuzkoa	%	Guztira	%
Sistema										
Osasun Sistema	1	% 1,1	3	% 3,2	4	% 4,2	5	% 5,3	13	% 13,7
Gizarte Zerbitzuen Sistema	0	% 0,0	3	% 3,2	5	% 5,3	0	% 0,0	8	% 8,4
Guztira	1	% 1,1	6	% 6,3	9	% 9,5	5	% 5,3	21	% 22,1

Iturria: Guk geuk egina

Kontsultatutako profesionalen sistemaren (Osasun Sistema edo Gizarte Zerbitzuen Sistema) eta lurralde historiaren arabera sailkatzen baditugu jasotako erantzunak, hautatutako lagin osoarekiko, ikusiko dugu ehuneko handiagoa jaso dela Osasun Sistematik (% 13,7), Gizarte Zerbitzuen Sistematik baino (% 8,4): bost punturen aldea dago. Ez da erantzunik jaso EAE osoko Gizarte Zerbitzuen Sistematik, ezta Gipuzkoako lurralde historikotik ere.

Amaitzeko, adierazi behar dugu **kontsulta-aldian izandako parte-hartzea oso desberdina izan dela, laginaren hautaketan aintzat hartu arren hiru lurralde**

historikoetan eratuko ziren organoen eta izendatuko ziren figuren berezitasunak, bai eta lurralde historiko bakoitzeko eta sistema bakoitzeko (Osasun Sistema edo Gizarte Zerbitzuen Sistema) organoetako agente parte-hartzaileen zenbakizko pisua ere.


Araba da parte-hartze handiena izan duen lurralde historikoa (jasotako erantzunen % 37,5, hautatutako laginean % 16,8 egokitu arren); atzetik, Bizkaia da (erantzunen % 24,3, kontsultatutako profesionalen laginaren % 38,9 egokitu arren), eta, azkenik, Gipuzkoa (jasotako erantzunen % 13,5 igorri ditu lurralde historiko horrek, nahiz eta han hautatutako profesionalen ehunekoa, Bizkaian bezalaxe, % 38,9koa izan).

Profesionalek kudeaketa-mailaren arabera izandako parte-hartzeari dagokionez, ehunekoak berdin-berdinak izan dira makro eta meso mailetan (% 6,3koa), nahiz eta hautatutako lagina desberdina izan: % 24,3koa eta % 12,6koa, hurrenez hurren. Mikro mailako edo maila asistentzialeko profesionalen parte-hartzea % 9,5koa izan da, hiru kudeaketa-mailetan altuena, baina urruti dago galdetegiarri erantzuteko hautatu ziren profesionalen ehunekotik (% 63,1).


Kontsulta-prozesuan parte hartu duten profesionaleri dagokienez, sistemaren arabera (Osasun Sistema edo Gizarte Zerbitzuen Sistema), gizarte-zerbitzuen eremuan askoz ere profesional gehiago hautatu baziren ere (% 62,1; Osasun Sistemako profesionalak % 37,9 ziren), parte-hartzea txikia izan da bi kasuetan, eta alderantzizko noranzkoan: Osasun Sistemako profesionalen % 13,7k hartu dute parte, eta Gizarte Zerbitzuen Sistemako profesionalen % 8,4k.

4.2. Galdetegiko erantzunen emaitzak

4.2.1. Gobernantza Dekretuaren ezagutza-maila



Balorazioak




Iturria: Guk geuk egina


Galdetegiko lehenengo galderak 21 erantzun jaso ditu, jasotako 21 galdetegietan. **Gobernantza Dekretuaren ezagutza-maila, batez beste**, galdetegiari erantzun dioten 21 pertsonen artean, **6,8koa** izan da.

4.2.2. Kotsultatutako profesionalen Gobernantza Dekretuaren hedapenean izandako inplikazioa

2G. Zeu ere eragile zara gobernantza soziosanitarioan; zeuk ere **baduzu zeregina** Gobernantza Dekretua hedatzen. Zenbateraino zaude engaiatuta?



Balorazioak



Iturria: Guk geuk egina

Galdetegiko bigarren galderak ere 21 erantzun jaso ditu, jasotako 21 galdetegietan. Galdetegiari erantzun dioten profesionalak, **batez beste, 7,4ko puntuazioa eman diote gobernantza soziosanitarioa hedatzeko prozesuan izandako inplikazioari.**

4.2.3. Gobernantza soziosanitarioaren agente gisa inkestatutakoek abiatutako ekintzen ondoriozko lorpenak

3G. Eta, **zure ekintzen ondoriozko lorpenak** kontuan hartuta, zein dira lorpenak Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren informazio, publizitate edo hedapenean?

Erantzun irekiko galdera honetan, 19 erantzun zenbatu dira jasotako 21 galdetegietan.

Hona hemen **inkestatutakoek identifikatu dituzten eta haien ekintzen ondorio diren lorpenak**:


- Gobernantza soziosanitarioaren ereduaren inguruan eztabaidatzea.
- Koordinazio soziosanitarioa hobetzen laguntzea.
- Gobernantza Dekretua hainbat erakundetan (Osakidetzan, Gizarte Zerbitzuen Sistemari eta abarretan) zabaltzea.
- Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua zabaltzeko egindako material lagungarriak gainbegiratzea.
- Informazioa ematea kasuan kasuko ESlari edo Osasun Mentaleko Sareari, Osasun Sistemari duten kudeaketa-eremuan. Batzuetan, hedapenak barruan hartu ditu Zuzendaritza, Asistentzia Klinikoko Kontseilua, Asistentzia

Batzorde Betearazlea, Arreta Goiztiarreko unitateburuak eta ESiko erreferente soziosanitarioak; beste batzuetan, berriz, hedapena ESiko/OMSk kudeaketa-taldera mugatu da.


- Erakunde Sanitario Integratuko gerentziak Lurraldeko Kontseilu Soziosanitarioan parte hartzea.
- Arabako Lurralde Plan Eragilea, lan-plana eta 2023rako ekintzen kronograma egitea.
- Gobernantza soziosanitarioa argitaratzea ESlaren aldizkarian.
- ESlaren mikro/asistentzia mailan informazioa ematea: Lehen Arretako profesionalak eta gizarte-langileak.
- Udalaren gizarte-zerbitzuetako taldeari edo adinekoen egoitza-ekipamenduetako taldeei informazioa ematea.
- ESlan lantalde bat sortzea.
- ESiko barne-protokoloak eguneratzea, egoitza-zentroak koordinatzeko.
- Hainbat ekintza abiatzea, Gipuzkoako Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak eratzeko eta lurralde- nahiz toki-mailako koordinazio soziosanitarioko figurak hautatzeko.
- Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioek funtzionatzeko barne-araudia onestea.
- ESletako profesionalak Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioan parte hartzera bultzatzea.
- Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioko talde arduradunari aitortza adieraztea.
- Tokiko Osasun Mahaien funtzionamendua.
- Osasun Mentaleko Sareak parte hartzea Bizkaiko Lurraldeko Kontseiluaren eraketan eta Bizkaiko lurralde historikoko Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioetan.
- Lurralde-koordinatzaile soziosanitarioarekin koordinatzea, Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioa eratzeko.
- Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioko kideen informazioa eguneratzen laguntzea.
- Profesionalak hautatzen parte hartzea, ESiko erreferente soziosanitarioak izendatzeko.
- Erreferente soziosanitarioak identifikatzea, ESlaren osasun-zentro guztietan.

4.2.4. Gobernantza soziosanitarioko kontsulta- eta partaidetza-organoak eratzeko prozesuaren balorazioa

4G. Abian da gobernantza soziosanitarioko **kontsulta- eta partaidetza-organoak** eratzeko prozesua. Gaur egun, zer balorazio egiten duzu hartaz?



Balorazioak




Iturria: Guk geuk egina

Galdetegiko laugarren galderak 20 erantzun jaso ditu, jasotako 21 galdetegietan. Kontsultatutakoek, **batez beste, 6,4 punturekin** baloratu dute kontsulta- eta partaidetza-organoak **eratzeko prozesua**.

4.2.5. Gobernantza soziosanitarioko koordinazio-figurak izendatzeko prozesuaren balorazioa

5G. Eta nola puntuatuko zenuke gobernantza soziosanitarioko koordinazio-figurak izendatzeko prozesua?






OSASUN SAILA
Osasun Sailburuordetza
Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD
Viceconsejería de Salud
Dirección Atención Sociosanitaria

Balorazioak



Iturria: Guk geuk egina

Galdetegiko bosgarren galderak ere 20 erantzun jaso ditu, jasotako 21 galdetegietan. Kontsultatuek, **batez beste, 6,8 punturekin** baloratu dute **koordinazio soziosanitarioko figuren izendapen-prozesua**; hau da, kontsulta- eta partaidetza-organoak eratzeko baloraziotik gora (0,4 hamarren gehiago).

4.2.6. Gobernantza soziosanitarioaren oraingo hedapenaren arabera epe laburrean hobetu daitezkeen alderdien identifikazioa

6G. Gobernantza soziosanitarioaren egungo hedapena ikusita, zer uste duzu hobetu daitekeela epe laburrean?

Galdera honek 19 erantzun izan ditu jasotako 21 galdetegietan, eta **gobernantza soziosanitarioaren hedapen-prozesuan epe laburrean hobetu daitezkeen arloak aztertzen ditu**. Jasotako erantzunen artean, honako hauek aipatu dira berariaz:

- Honako hauek dira Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren hedapenean identifikatu diren hobekuntza-arloak:
 - Gobernantza Soziosanitarioko Dekretuaren hedapenean erakundearteko komunikazioa hobetzea eta dekretua «guztientzat» egokitzeko lan-zirkuituak egokitzea.
 - Gobernantza soziosanitarioa hedatzeko prozesuan parte hartzeko prozedura hobetzea.
 - Gobernantza soziosanitarioa hedatzeko prozesua soiltzea, azkarragoa eta eraginkorragoa izan dadin, eta horri buruzko «plan zehatz» bat edukitzea.

**OSASUN SAILA**

Osasun Sailburuordetza
Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD

Viceconsejería de Salud
 Dirección Atención Sociosanitaria

- Informazioa banatzeko metodoak aztertu eta hobetzea, ez baita «iristen enplegatu guztiengana».
 - Aurrez aurreko bilera bat egitea tartean dauden agente guztiekin, haien arteko koordinazioa hobetzeko.
 - Kontsulta- eta partaidetza-organoen funtzionamendua eta izendatutako koordinazio-figurak baloratzea, abian jarri edo izendatzen direnetik aldi bat igarotakoan.
 - Gasteizeko Udalak eta Osasun Mentaleko Sareak Arabako Lurralde Kontseilu Soziosanitarioan parte har dezaten lortzea.
 - Araban nahasmendu mental larriari buruzko batzorde soziosanitario bat sortzea.
 - Koordinazio-guneak sortzea nahasmendu mental larria duten pertsonentzat, ESletako psikiatria-zerbitzuak, Osasun Mentaleko Sareak eta gizarte-zerbitzuak lotzeko.
 - Koordinazioa hobetzea desgaitasun intelektuala dutenentzako arreta soziosanitarioan.
 - Erakundeen eta profesionalen arteko topalekuak sustatzea, dauden baliabideak ezagutarazten eta ezagutzen laguntzeko.
 - Erakundeen eta profesionalen arteko topalekuak sustatzea, guztien intereseko gaiei buruzko prestakuntza jasotzeko (adibidez: adinekoen aurkako tratu txarrak atzemateko tresna).
 - Lurralde-plan eragileak egin daitezten sustatzea.
 - Lurralde-plan eragileetako ekintzak lehenesteko ekarpenak egin eta parte hartzeko prozedura bat zehaztea.
 - Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak eratzeko eta garatu beharreko ekintzak abiatzeko prozesua azkartzea.
 - Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioetako kideen profil teknikoa argi zehaztea.
 - Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioetan parte hartzen duten erreferenteei ematen zaien informazioa hobetzea.
 - Erreferente soziosanitarioaren figura indartzea.
 - Kontsulta- eta partaidetza-organoen ardura eta ahalmena zein diren argitzea.
 - Gizarte-eremuko langileek Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioetan gehiago parte hartzea eta parte-hartze hori sustatzea.
 - Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioetan parte hartzen duten profesionalen topalekuak eta lan egiteko modua zehaztea, ezarritako aldizkako bileretatik harago (2 urtean).
 - Osasun mentalean Lehen Arreta Soziosanitarioko talde egonkorak sortzea.
 - Aurrez aurrekoak ez diren biltzeko erak garatzea, profesional gehiago bertaratu ahal izan daitezten.
- Koordinazio soziosanitarioaren funtzionamenduari oro har eragiten dioten hobetzeko arloak, Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren hedapenari bereziki eragiten ez diotenak:
 - Mendekotasunaren eta desgaitasunaren balorazioaren inguruko alderdietan komunikazioa hobetzea.
 - Historia soziosanitarioa lortzeko elkarreragingarritasun-prozesuan aurrera jarraitzea.
 - Osasun Sistemaren eta Gizarte Zerbitzuen Sistemaren artean txostenak eta/edo eskaerak partekatzeke elkarreragingarritasuna hedatzea.



OSASUN SAILA

Osasun Sailburuordetza
Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD

Viceconsejería de Salud
Dirección Atención Sociosanitaria

- Beste ESI batzuetan egindako lana zabal partekatu eta ezagutaraztea, bai huts egin duten proiektuak eta prozesuak errepikatzea saihesteko, bai prozesuak nahiz proiektuak berritzea, abian jartzea eta hobetzea sustatzeko.
- Planteatutako proiektu estrategikoak hedatzea.
- Osasun Mentaleko Saretik foru-baliabide soziosanitarioen BOLK kontseilura iritsi ahal izan dadin sustatzea, Arabako lurralde historikoan.
- Oinarritik/mikro edo asistentzia mailatik sortzen diren ekimenetan *bottom-up* espirituari eustea.
- Erakundeek abiatutako jarduera egokien aitortza hobetzea, jarduerok heda daitezen.
- Kasuak kudeatzeko eta administrazio-izapideak egiteko tresnak ematea arreta soziosanitarioko arduradunei, ospitaleko gizarte-langileek SIR plataformara sartzeko gaikuntza izan dezaten, bai eskaerak kudeatze eta azkartze aldera (adibidez: foru-eskumeneko egoitza-baliabide soziosanitarioetarako sarbidea), bai baliabideetara lekualdatzeko izapideak azkartze aldera, ospitalizazioa murrizteko xedez.
- Osakidetzaren eta egoitza-baliabide soziosanitarioen arteko harremana garatzea.

4.2.7. Gobernantza soziosanitarioaren hedapenean epe luzera hobetu daitezkeen alderdien identifikazioa

7G. Gobernantza soziosanitarioaren egungo hedapena ikusita, **zer** uste duzu **hobetu** daitekeela **epe luzean**?

Galdera honek 16 erantzun izan ditu jasotako 21 galdetegieta, eta **governantza soziosanitarioaren hedapen-prozesuan epe luzera hobetu daitezkeen arloak planteatzen ditu**. Honako hauek dira:

- EUDELekin jarduteko esparru bat garatzea, Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren babespean, esku-hartze soziosanitarioa EAE osoan erraztu dadin, modu esplizituan eta erakundeen eta udalerrien artean sinatutako esparru-protokoloetatik harago (esparru-protokoloak oso neketsuak dira, egiteko zailak dira eta).
- Gobernantza soziosanitarioaren hedapenean parte hartzen duten agenteak (ekosistema soziosanitariokoak) gehiago inplika daitezkeen lortzea, horrelako premiak dauzkatenen bizi-kalitatea eta arreta soziosanitarioa hobetuko dituzten alderdiei buruzko informazioa partekatu ahal izateko.
- Bi «unibertso paralelok» elkar ezagutzeko bide ematea.
- Gizarte Zerbitzuen Sistemako agenteak aintzat har daitezkeen sustatzea.
- Lurralde historikoen artean esperientziak partekatzea, bilakaera eta ideiak partekatzeko, ekitate handiagoa egon dadin.
- Agenteen parte-hartzea dinamizatzea, informazioaren hartzaille hutsak izateari utz diezaioten, eta sortutako lantaldeak dinamizatzea.
- Agente guztien arteko komunikazioa sustatzea; bereziki, osasun-eremuan, ESlen barruan eta ESlen artean.
- Osasun-eremuko eta gizarte-eremuko profesionalen artean komunikazio-kanal egonkor eta arinak zehaztea.

- Informazioaren elkarreragingarritasuna eta informazioa partekatzeko aukera emango duten prozedurak garatu daitezzen lortzea (adibidez: mendekotasunaren eta desgaitasunaren balorazioan).
- Arreta integratua hobetzea.
- Batzordeen eta azpibatzerdeen eraginkortasuna handitzea.
- Kasuak benetan elkarrekin kudeatzeko guneak sortzea eta kasuen kudeaketan erantzukizun partekatua sustatzea.
- Historia klinikoko erregistro kopurua areagotzea.
- Lehen Arreta Soziosanitarioa berariaz ezartzea desgaitasun intelektuala dutenentzat.
- Osasuneko eta gizarte-zerbitzuetako profesionalen agendetan kasuak kudeatzeko ezarrita dagoen denbora edukitzea.
- Bi sistemen artean partekatzea diagnostikoak eta esku hartzeko programak (adibidez: osasun mentalaren eta gizarte-zerbitzuen artean), baita artatuarekin ere.
- Proiektu soziosanitario komunak egitea osasun mentaleko zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen artean (adibidez: bizitza independenterako laguntzak garatzea).
- Bi sistemek elkarrekin egitea plangintza, baliabide eta programa soziosanitarioei dagokienez.
- Adostutako ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Informazio gehiago ematea Tokiko Osasun Mahaiei.
- Euskadiko Arreta Soziosanitarioko 2021-2024ko Estrategian jasotzen diren plangintzak gauzatzeko behar diren giza baliabideen premiak aztertzea, hala nola kasuak koordinatzeko eta arreta soziosanitarioa garatzeko gizarte-langileak.
- Sistema judiziala inplikatzea eta aholkularitza juridikoa edukitzea.

4.2.8. Gobernantza soziosanitaria hedatzeko prozesuan nabarmentzekoak diren alderdien identifikazioa

8G. Zuk ikusi-ikasitakoa oinarri hartuta, gaur egun, prozesuaren **zer alderdi nabarmenduko** zenuke?


Galdera honek 18 erantzun izan ditu jasotako 21 galdetegietan, eta **Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren hedapenean nabarmentzekoak diren gai hauek** aipatu dituzte:

- Gobernantza Dekretua argitaratzea; bereziki, arreta soziosanitarioak Arabako lurralde historikoan garrantzi handiagoa izatea ahalbidetzeko.
- Erakundeek abiapuntu komun bat edukitzea eta estrategia komunak egitea.
- Osasun Sistemaren eta Gizarte Zerbitzuen Sistemaren artean nahiz bertako profesionalen artean lankidetzan aritzeko egitura bat egotea.
- Gobernantza Dekretuan jasotzen diren kontsulta- eta partaidetza-organok eratzeko (batzuk atzeratu egin dira, ezarritako epeari dagokionez).
- Bi eremuek (osasun-eremuak eta gizarte-zerbitzuen eremuak) ahalegina egitea, EAEko arreta soziosanitarioaren koordinazioa hobetzen saiatzeko.
- Askotariko agenteak lankidetzan aritzea.


- Koordinazio Soziosanitario Autonomikoak eta BIOEFeko taldeak hedapenean laguntzea (eraketa-bileren aurkezpenak ppt formatuan egitea, akta-ereduak ematea, informazio eta eguneratze etengabe eta jarraituak egitea, zalantzak berehala argitzea, eta abar).
- Kontsulta- eta partaidetza-organoetako kideak nahiz koordinazio-figurak izendatu daitezten lortzea.
- Partaidetza-organoak eratu daitezten lortzea.
- Gobernantza soziosanitaria hedatzeko zereginak eta kronogramak ezartzea.
- Lurralde-plan eragilean jasotzen diren koordinazio-egiturak sortu eta garatzea (dekretuak arauzko euskarria ematen dio gaur egungo antolaketa- eta harreman-egiturari, aurretik egindako lanari jarraitutasuna emateko).
- Elkarreragingarritasun soziosanitaria lortzeko zereginetan aurrera egitea, zailtasunak zailtasun.
- Laburpenak eta gidoiak egitea, Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua hobeto uler dadin.
- Bi eremuetan (osasuna eta gizarte-zerbitzuak), arreta soziosanitarioan parte hartzen duten profesionalak elkar ezagutzea.
- Bi eremuetako baliabideen berri edukitzea.
- Bi eremuetako (osasuna eta gizarte-zerbitzuak) profesionalak elkarrekin lan egitea.
- Osasun Mentaleko Sareko profesionalak Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioetan sartzeara.
- Kasu konplexuak kudeatzeko batzordeak sortzea (oso eraginkorrak).
- Esku hartzen duten askotariko agenteak Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioen inplikatzeara.

4.2.9. Gobernantza Dekretuaren hedapenean informazio- eta publizitate-lanak egiten eta/edo parte hartzen laguntzea, komunikazio-ekintzen eta Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak garatutako bestelako ekintzen bidez

9G. Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak komunikazio-ekintzak eta beste jarduketa batzuk egiten ditu Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua hedatzeko. Ekintza horiek lagungarriak izan al zaizkizu dekretuaren hedapenaren informazioa emateko, haren publizitatea egiteko edo hartan parte hartzeko?




Balorazioak




Iturria: Guk geuk egina

Galdetegiko bederatzigarren galderak ere 21 erantzun jaso ditu, jasotako 21 galdetegietan. **Batez beste**, kontsultatutako profesionalak **6,7** puntu eman dizkiote **Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak komunikazio-ekintzen eta bestelakoen bidez emandako laguntzari.**

4.2.10. Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak sustatu dituen eta Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua hedatzeko baliagarriak izan diren egitasmoen identifikazioa



Balorazioak



Iturria: Guk geuk egina

Galdetegiko hamargarren galderak hainbat aukera ditu, eta 18 profesionalen erantzuna jaso du, jasotako 21 galdetegietan.

Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak sustatutako ekimenen artean (funtsean, dokumentazioa egin eta ezagutarazteari buruzkoak dira), **komunikazio-gida da gehien erabili eta ondoen baloratu dutena; gero, komunikazio-estrategia, zeina barne-ezagutzarako proiektatu baita (ASSEK), batez ere Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioari laguntzeko asmoz egindako material lagungarri batzuekin batera.**

Bestelako egitasmoen balorazioan, nahiz eta lau profesionalak identifikatu dituzten Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzaren beste egitasmo batzuk –governantza soziosanitarioa hedatzen laguntzen dutenak–, egitasmoon izaera zehazteko orduan erantzun bakarrak eman du informazioa: haren arabera, hedapenerako baliagarria da Bizkaiko lurralde historikoan erreferente soziosanitarioekin bilera bat egitea.

4.2.11. Ekosistema soziosanitarioko beste agente batzuen laguntza, informazioa edukitzeko

11G. Eta Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak egin dituen **komunikazio-ekintza horietatik**, edo Gobernantza Dekretua hedatzeko egin dituen jardueretatik, zeintzuek izan dute eraginik eskasena?

Galdera honek 4 erantzun jaso ditu, jasotako 21 galdetegietan. Erantzunek, urriak izan badira ere, argi erakutsi dute Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzaren komunikazio-ekintza batzuk ez direla oso eraginkorrak izan, agenteek uste baitute

komunikazio instituzionala urria izan dela; bereziki, **udalekiko komunikazioari** dagokionez (izan ere, Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioen bidez eman zaie informazioa erreferenteei).

4.2.12. Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaz informatzeko, haren publizitatea egiteko eta hura hedatzeko orduan hobetu ditzakeen alderdiak

12G. Zure iritziz, Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak zer hobetu beharko luke Gobernantzaren Dekretuaz informatzeko, haren publizitatea egiteko eta hura hedatzen jarraitzeko?

Jasotako 21 galdetegietan, galdera honek 15 erantzun jaso ditu. Erantzunetan, honako **alderdi hauek aipatu dituzte Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaz informatzeko, haren publizitatea egiteko eta hura hedatzeko orduan hobetu ditzakeenen artean:**

- Koordinazio Soziosanitario Autonomikoaren irudia sartzea gizarte-eremuan.
- ESletako gerentziei azpimarratzen jarraitzea oso garrantzitsua dela Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua hedatzea.
- Lurralde historikoei laguntzen jarraitzea, Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua aurkeztea eta hedatzea erraztuko duten informazioaren, ekintzen eta dokumentazioaren bidez.
- Aktibatzen/motibatzen jarraitzea, erakundeen eta profesionalen inplikazioa nahiz agenteen koordinazioa hobetu daitezen, EAEko arreta soziosanitarioa hobetzeko.
- Gobernantza soziosanitarioaren hedapena bukatutzat jotzea eta Lurraldeko Kontseilu Soziosanitarioen nahiz Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioen funtzionamendua dinamizatzea.
- Lurralde Koordinazioak Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioetan duen eginkizuna garatzea.
- Bi sistemei (Osasun Sistemari eta Gizarte Zerbitzuen Sistemari) informazioa aldi berean ematea eta informazioa maila eta profesional guztien artean egoki banatzea.
- ESI guztietan eta gizarte-zerbitzuen foru- nahiz udal-sail guztietan aurkeztea Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua.
- Kontsulta- eta partaidetza-organoei (bereziki, Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioek eta erreferente soziosanitarioek) dekretua ezagutarazten eta hedatzen jarraitzea zeinek bere erakundeetan, informazioa profesional guztiengana irits dadin.
- Tartean diren agenteen artean koordinazio-bilerak egitea.
- Bilera telematikoak egiteko aukera eskaintzea.

4.2.13. Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaz informatzeko, haren publizitatea egiteko eta hura hedatzeko lana hobetu dezan iradokitako ekintzak


13G. Eta, horretarako, zer egin lezake/egin behar luke?

Galdera honek 12 erantzun jaso ditu, jasotako 21 galdetegietan. **Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaz informatzeko, haren publizitatea egiteko eta hura hedatzeko lana hobetze aldera egokitzen jo dituzten ekintzak** honako hauek dira:

- Lurraldearteko topaketak sustatzea.
- Batzorde Tekniko Iraunkorraren lana indartzea.
- «Lurralde-planteamenduen eta planteamendu estrategiko orokorren arteko iragazkortasuna» hobetzea.
- ESletako gerentziekin bilerak egitea, urtean behin.
- Lurralde mailan jarduera egokiak trukitzea.
- Dokumentazioa soiltzea, nahasia eta konplexua delako.
- Ezagutarazteko bileretarako laguntza-materiala egiten jarraitzea.
- ESI edo gizarte-zerbitzuen sail/arlo bakoitzeko erreferente soziosanitarioen laguntza eta inplikazioa edukitzea.
- Udallerri guztietan Tokiko Osasun Mahaia sortzea.
- Osasun-eremuko gobernantza soziosanitarioaren hedapenaren zati bat Kontratu Programaren ebaluazioko adierazleekin bat datorrela baloratzea.
- Informazioa helarazteko bestelako formulak sustatzea, topaketen, hitzaldien, informazio-pilulen eta abarren bidez.
- Tartean dauden askotariko agenteei informazioa ematea, beren taldeetara eraman dezaten.
- Informazio-gida bat egitea eta kartelak editatzea.
- Informazioa ahoz helaraztea kudeaketa-maila guztietan eta interesdun guztiei.

4.2.14. Ekosistema soziosanitarioko beste agente batzuek laguntzea, Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaz informatzeko, haren publizitatea egiteko eta/edo hura hedatzean parte hartzeko.

14G. Izan al duzu beste eragile batzuen laguntzarik Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren informazioa biltzeko, haren publizitatea egiteko edo haren hedapenean parte hartzeko?






OSASUN SAILA
Osasun Sailburuordetza
Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD
Viceconsejería de Salud
Dirección Atención Sociosanitaria

Balorazioak



Iturria: Guk geuk egina

Galdetegiko hamalau garren galderak, erantzun itxikoak, 19 profesionalen erantzuna jaso du, jasotako 21 galdetegietan.

Hala, **Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua hedatzeko orduan beste erakunde batzuetatik laguntzarik jaso ote duten galdetzean**, gehienek (11k) ezetz erantzun dute, eta batzuek baietz (7k).

Baiezko 7 erantzunetatik 6tan, agenteek adierazi dute **ekosistema soziosanitarioko erakunde edo agente hauek lagundu dietela**:

1. Gizarte Zerbitzuen Sistemako agente batek esan du **Erakunde Sanitario Integratuetatik (Osakidetza) eta tokiko gizarte-zerbitzuetatik** datozela laguntza horiek.
2. Osasun Sistemako agente batek **Osakidetza, foru-aldundiak eta EUDEL** aipatu ditu Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua hedatzen lagundu dioten erakundeen artean.
3. Gizarte Zerbitzuen Sistemako agente batek adierazi du **lurralde-koordinatzaile soziosanitarioak** lagundu diola.
4. Osasun Sistemako agente batek lurralde-koordinatzaile soziosanitarioa eta bere **Erakunde Sanitario Integratuko (Osakidetza)** Erizaintza Zuzendariorde aipatu ditu.
5. Osasun Sistemako agente batek adierazi du lurralde-koordinatzaileak lagundu diola dekretua hedatzen.
6. Osasun Sistemako agente batek **Laguntza Zuzendaritza eta bere Erakunde Sanitario Integratuko (Osakidetza) komunikazio-erreferentea, bertako erreferente soziosanitarioa eta Osasuneko lurralde-koordinatzailea** identifikatu ditu dekretua hedatzeko laguntzaile gisa.

4.2.15. Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren hedapenak epe labur-ertainera begira dituen erronka nagusiak

15G. Azkenik, zure ustez, epe labur eta ertainean nagusiki zer erronka izango ditugu Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua hedatzeko?

Galdetegiko azken galderak 17 erantzun jaso ditu 21 galdetegietan, eta, **epe labur-ertainera begira, honako erronka hauek identifikatu ditu Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren hedapenean:**

- Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua zabalago ezagutzera ematea.
- Sinesgarritasuna lortzea. Helburuak lortzeak sinesgarritasuna emango die figura batzuei, eta, ondorioz, EAEko gobernantza soziosanitarioaren egitura funtzionalari ere bai.
- Tartean dauden alderdi guztiak Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua hedatzeko enkarguan inplika daitezen lortzea, erakundeetako buruengandik hasita, eta kontsulta- eta partaidetza-organoen berri ematea; batez ere, eguneroko lana garatzeko koordinazio-figuren eta erreferenteen berri.
- Gobernantza soziosanitarioak koordinazioa hobetzeko benetan balio duela eta jarduketek profesionalen lana errazten dutela pentsa dadin lortzea, artatuari begiratzuz (ahalmenak eta asebate behar diren premiak).
- Erabakiak hartzen dituzten maila politikoek etorkizunean arreta soziosanitarioari eman ahalko dioten laguntza.
- «Profesional guztiak hizkuntza bera hitz egin dezaten» lortzea.
- Profesional guztiak ados jar daitezen eta koordinazioa areagotu dadin lortzea.
- Osasun Sistemaren eta Gizarte Zerbitzuen Sistemaren artean antolaketa-kultura, egitura, prozedura, araudi eta abar desberdinekin lan egiteak dakarren erronkari aurre egitea (osasun mentalean, zehazki, kontu hau areagotu egiten da).
- Arreta soziosanitarioaren presentzia instituzionala egonkortzea.
- Lurraldeko Kontseilu Soziosanitarioko osagai guztiak helburu bera izan dezaten lortzea.
- Koordinazio-figuren lidergoa garatzea.
- «Lehen Arreta Soziosanitarioaren ikuspegiaren kompetentzia propioak modu trinkoan txertatzea».
- Komunikazio-tresna eraginkor eta hurbilagoak bilatzea eta lurralde historiko bakoitzean egiten diren aurrerapenak edota garapen-bidean dauden proiektu pilotuak ezagutzera ematea.
- Elkarrekin jarduteko protokolo bat egitea.
- Topaketa tekniko baliagarri eta eraginkorrak egitea.
- Erakundeetan proiektu estrategikoak sustatzea.
- Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioak funtzionamendu efikaz eta efizientea izan dezan lortzea.
- Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldeak funtzionamendu efikaz eta efizientea izan dezan lortzea.
- Askotariko agente soziosanitarioak inplika daitezen lortzea, eguneroko lanak zailtasunak izan arren (profesionalen gabezia, gehiegizko lana, baliabiderik eza).
- Osasun-eremuko langileek duten lan-gaikarga arindu edo deuseztatzea.

**OSASUN SAILA**

Osasun Sailburuordetza
Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD

Viceconsejería de Salud
Dirección Atención Sociosanitaria

- Bi sistemek zerbitzu soziosanitario «puruen» kontraprestazio ekonomikoak % 50ean finantzatu ditzaten sustatzea. Diru-konpentsazioak, berez, ez dira helburu bat, zerbitzu «sozial» bat ematean gauzatutako jarduketa sanitarioen aitortza baizik, eta homogeneousak izan behar dute erakunde guztietarako.
- Planteatutako gobernantza-eredua soiltzea, konplexuegia delako.
- Egindako lana aztertzea eta lan egiteko bide berriak aztertzea erakunde guztien artean, elkarrekin aurrera egitea lortzeko.

5. EAEko gobernantza soziosanitarioaren hedapenari buruzko ondorioak

Lehenik eta behin, azpimarratu egin behar dugu kontsulta-prozesuari eta prozesu horren emaitzei buruzko ondorioek ezin dezaketela bazter utzi parte-hartzea urria izan dela, nahiz eta hautatutako lagina zabala izan. Parte-hartzea hain baxua izateak iradokitzen duenez, **hautatutako profesionalak ez dute galderei erantzuteko interesik** izan, ezta, azken batean, galderei erantzunez **Gobernantza Dekretuaren hedapenari ekarpenik egiteko interesik** ere.

Prozesuaren diseinua une oro saiatu da askotariko lanbide-profilen, kudeaketa-eremuen (mikro, meso eta makro mailen), koordinazio-figuren, partaidetza- eta ordezkari-organoen eta lurralde historikoen ordezkari-orekatua lortzen. Zehazki, hautatu den lagina sentikorra izan da Sistema Sozialaren zabaltasunarekiko (251 udalerrri, EAEko Gizarte Zerbitzuen sistemarako sarbidea direnak). Gainera, udalerrri guzti-guztietan izendatu dira erreferente soziosanitarioak; bestela, zerbitzu-mankomunitateek izendatu dituzte, herritarrei gizarte-arreta bermatzeko.

Hala, honako hau da **LEHENENGO ONDORIOA**: **parte-hartzea txikia izan da, eta horrek galarazi egiten du gobernantza soziosanitarioaren hedapenean parte hartzen duten profesionalen iritzia eta pertzepzioa neurri handi edo txikiagoan islatuko dituzten ondorioak ateratzea.**

Gainera, egindako galderei emandako erantzunen zati handi bat ez da iristen jasotako galdetegiaren % 100era; **hortaz, ondorioek ezin dezakete eragin ekosistema soziosanitarioak, oro har, bere egin dezakeen orokortzerik, nahiz eta haiek, hein handi batean, ekosistema honetako agenteen kezka errepikatuen eta oztupo historikoen isla izan** (besteak beste, EAEko arreta soziosanitarioaren premiazkoa da hizkuntza komun bat eta lan-prozedurak partekatutak izatea, baita baliabide gehiago ere —langile, material eta abarren gabezia dela eta—).

Galdetegia bidali zen unean, artean eratzeko zeuden Eskualdeko Batzorde Soziosanitario batzuk (ikus 6. irudia), Bizkaiko lurralde historikoan hiru batzorde baitzeuden eratzeko (Barrualde-Galdakaokoa, Bilbo-Basurtukoa eta Ezkeraldea-Enkarterri-Gurutzetakoa), Gipuzkoako Lurralde Kontseilu Soziosanitarioa bezalaxe (2023ko irailaren 1ean ere osatu gabe zegoen), baina, oporrak hurbil zeudenez eta hauteskundeak zetoenez (toki- eta foru-hauteskundeak 2023ko maiatzaren 28an), galdetegia lehenbailehen bidaltzea komeni zen.

Aipatutakoak kontuan hartuta, komeni da gogoan izatea Gobernantza Dekretuaren hedapenak beharrezko egin zuela haren edukiak lehentasunez ezagutaraztea ASSEKEN barruan dauden EAEko arreta soziosanitarioko erakunde arduradunei. Horri begira, **goitik beharrazko komunikazio-estrategia bat zehaztu zen**, sekuentziaka planteatua eta hartzailak bereizten zituena, gobernantza soziosanitarioa hedatzeko zuten garrantziaren arabera edo hedapenean zuten parte-hartzean oinarrituta. Estrategia hori osatze aldera, gida bat egin zen, erakundeek eta profesionalak Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua ezagut zezaten.

Bestalde, **profesionalek Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaz duten ezagutza-maila 10etik 6,8koa izanik**, eta dokumentu hori denez eratu beharreko kontsulta- eta partaidetza-organoen izaera, eginkizunak eta harremanak ulertzeko oinarria, bai eta izendatu beharreko figuren izaera, eginkizunak eta harremanak ulertzeko ere, **BIGARREN**

ONDORIOA da zer hobetu asko dagoela EAEko arreta soziosanitarioa koordinatzeko oinarrizko esparruaren inguruko ezagutza-mailan.

Kontsultatuek, oro har, ondo baloratu dituzte dekretua hobeto eta gehiago hedatzeko egin diren materialak (estrategia, gida, banatutako barne-dokumentazioa eta bestelako ekintzak –bilerak, adibidez–). Zenbaiten iritzian, egindako materialen edukiak *soildu beharko lirateke* (13. galderari emandako erantzuna: *dokumentazioa soiltzea, nahasia eta konplexua delako*), eta materialon berri edukitzeko elkarreragin handiagoa lortzea bileren bidez (13. galderari emandako erantzuna: *informazioa ahoz helaraztea kudeaketa-maila guztietan eta interesdun guztiei*). Erantzunen arabera, dokumentu batzuk ezagutzen eta erabiltzen dira (ikus **10. galderari** emandako erantzunak), baina **dekretuaren inguruko ezagutza-mailak argi adierazten du erakundeek, eraturako organoek eta koordinazio-figurek ahalegintzen jarraitu behar dutela, dekretua zabal hedatu eta ezagut dadin, sistema batean zein bestean lan eginez arreta soziosanitarioa posible egiten duten profesional ugarien artean**, organoak eratzeko eta figurak izendatzeko lehenengo fasea amaitutakoan. Horra hor **HIRUGARREN ONDORIOA**.

Dekretuaz duten ezagutza ez oso on horren aurrean, nabarmentzekoa da zer **puntuazio eman dioten profesionalek Gobernantza Dekretua hedatzeko lanetan izandako inplikazio-mailari: 10etik 7,4 puntu**. Inplikazio altu horrek zerikusia izan lezake nolabaiteko frustrazioarekin –ahaleginak eta inplikazioak bat ez datozenean espero diren emaitzekin– edo, bestela, kritika edo autokritika altu batekin, zeinak agerian jartzen baitu badakitela dekretua hedatzeko lanak hobetu daitezkeela. Hala, kontsulta-organok eratu eta koordinazio-figurak izendatzeko prozesuen balorazioak balio zertxobait txikiagoak eta antzekoak dauzka (10etik 6,4koa, organoei dagokienez, eta 10etik 6,8koa, koordinazio-figurei dagokienez). Horrek ere iradokitzen duenez, hobetzeko tarte handia dago prozesuan.

Norberaren ekintzen ondoriozko lorpenei buruz galdetzean, erantzunek, neurri handi batean, bat datoz espero den rolaekin; adibidez, lurralde-koordinazioko eginkizunak betetzen dituzten agenteen rolaekin edo erreferente soziosanitarioen rolaekin: ematen duenez, bete egin dira Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua hedatzeko zehaztu diren helburuak. Dena dela, gizarte-zerbitzuetako profesionalek kontsultan izandako parte-hartzea nahiko eskasa izan denez (bereziki, kudeaketa-maila mikroan/asistentzian), zaila da zehaztea bai zenbateraino hartu duten parte hedapenean, bai zenbateko irismena eta arrakasta izan dituen goitik beherako komunikazio-estrategia informatiboak (goitik behera diseinatu da, sistema eta erakunde bakoitzaren barruan).

Goitik beherako komunikazio-estrategia halaxe diseinatu zen, epe laburrean lor zedin dekretuaren edukiei buruzko informazioa modu erraz, oinarrizko eta uniforme batean ematea dekretua hedatzeaz eta dekretuak arrakasta izateaz arduratzen diren agenteen sektore zabalari, ekosistema soziosanitarioaren barruan. Horretarako, hedapenean, maila bakoitzeko (makro, meso eta mikro) koordinazio-figuren lidergo-ereduak lotuta egon behar zuen komunikazio-lan mardul batekin. Hori dela-eta, **LAUGARREN ONDORIOAK** iradokitzen du **nahitaezkoa dela hedapen-prozesuko liderrek bere gain hartzea Gobernantza Dekretuaren berri emateko eginkizuna (hots, komunikazioan ere liderrak izatea), dekretuari buruzko informazioak zabaltzen jarrai dezan eta mikro/asistentzia mailara irits dadin, maila hori giltzarria baita arreta soziosanitarioan** (12. galderari emandako erantzuna: *ESI guztietan eta gizarte-zerbitzuen foru- nahiz udal-sail guztietan aurkeztea Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua; Kontsulta- eta partaidetza-organok (bereziki, Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioek eta*

erreferente soziosanitarioek) dekretua ezagutarazten eta hedatzen jarraitzea zeinek bere erakundeetan, informazioa profesional guztiengana irits dadin; 15. galderari emandako erantzuna: koordinazio-figuren lidergoa garatzea eta abar).

Informazioa giltzarria da profesionalak ahalduzko (6. galdera: *eskualdeko Batzorde Soziosanitarioetan parte hartzen duten erreferenteei ematen zaien informazioa hobetzea*), baina baita profesionalak beren eginkizunak betetzea lortzeko eta askotariko organoetan modu aktiboan, elkarlanekoan, koordinatuan, efizientean eta, azken batean, funtzionalean parte hartzeko ere. Eta ahalduzko horrek erreferente soziosanitarioarengana iritsi behar du. **BOSGARREN ONDORIOAK**, beraz, honako gogoeta honetan dauka jatorria: **Gobernantza Dekretua arrakastaz hedatu ahalko da, baldin eta goitik beherako komunikazioa oinarriko profesional gehienengana iristen bada, Lehen Arreta Soziosanitarioko arduradunak dira eta**. Eta, horretarako, ezinbestekoa da erakundeetan jarduteko ahalmena baliatuko duten erreferente informatu eta ahaldunduak edukitzea (6. galderari emandako erantzuna: *erreferente soziosanitarioaren figura indartzea*).

Era berean, gobernantza soziosanitarioa hedatzeko prozesuan **hobetu daitezkeen alderdiei** buruz, profesionalak esan dute **erakundearteko komunikazioa, hedapen-prozesuko parte-hartzea eta informazioaren banaketa hobetu** behar direla; alegia, berriz ere **agerian geratu da komeni dela erakunde guztiek jarraitzea dekretuaren edukien berri ematen eta dekretuaren egitura funtzionalak EAEko arreta soziosanitarioaren koordinazioari ekarriko dizkion inplikazioak ulertarazten**. Premia horren adibide ona dugu 6. galderari emandako erantzunetan, adierazi baitute komeni dela *argitzea zein den kontsulta- eta partaidetza-organoen ardua* eta, halaber, komenigarria litzatekeela dekretuak planteatzen duen lan-esparrua hobeto ezagutzea (7. eta 8. galderen erantzunak), hala eraturako organoei dagokienez, nola harremanetan dauden organoei edota koordinazio-figurei dagokienez; bereziki, erreferente soziosanitarioen figurari dagokienez. Azken finean, honako hau da **SEIGARREN ONDORIOA: konpromiso, babes eta lidergo instituzionalak –erakundeen inplikazioa– ere indartu behar dira dekretuaren alderdi giltzarriak ezagutarazteko garaian** (12. galderaren erantzuna: *gizarte-eremuan Koordinazio Soziosanitario Autonomikoaren figura txertatzea; ESletako gerentziei azpimarratzen jarraitzea oso garrantzitsua dela Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua hedatzea; Aktibatzen/motibatzen jarraitzea, erakundeen eta profesionalen inplikazioa nahiz agenteen koordinazioa hobetu daitezen, EAEko arreta soziosanitarioa hobetzeko; 15. galderari emandako erantzuna: *tartean dauden alderdi guztiak Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua hedatzeko mandatuan inplika daitezen lortzea, erakundeetako buruengandik hasita; Arreta soziosanitarioaren presentzia instituzionala egonkortzea eta abar*).*

Epe laburrera hobetu daitezkeen alderdien artean, maila eragileari buruzkoak nabarmendu dira; hau da, kontsulta- eta partaidetza-organok eratu ondorengo egunari buruzkoak. Barneko lan-dinamikei buruz ari dira, zeinak organook zehaztu, adostu eta garatzeko zain baitaude, nahiz eta egiazki denbora-tarte laburra igaro den eta, kasurik onenean, organoen lehenengo eraketa egin den (6. galderari emandako erantzunak: *Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioetan parte hartzen duten profesionalen topalekuak eta lan egiteko modua zehaztea, ezarritako aldizkako bileretatik harago (2 urtean); Kontsulta- eta partaidetza-organoen funtzionamendua eta izendatutako koordinazio-figurak baloratzea, abian jartzen edo izendatzen direnetik aldi bat igarotakoan*). Esate baterako, horixe da Eskualdeko Batzorde Soziosanitario gehien kasua. Horrenbestez, **ZAZPIGARREN ONDORIOAK denbora** du jomuga, **beharrezko den baliabidea baita hori organo bakoitzak bere funtzionamendu-oinarriak ezarri eta finka**

ditzan eta kideek beren lan-kultura eta -dinamikak sortu eta konfiantza- nahiz komunikazio-lokarriak ehundu ditzaten, ezinbestekoak baitira arreta soziosanitarioa koordinatzeko, maila edozein izanik ere.

Profesionalek epe luzera hobetu daitezkeen alderdiak ere identifikatu dituzte ikuspegi estrategiko batekin, eta **sistemen arteko ezagutza-maila** hobetu behar dela adierazi dute; **zehazki, profesionalen artean konfiantzazko harremanak eraikitzea** komeni dela esan dute, eginkizunak betetzeko inplikazioa areagotzen delako horrela. Begirada estrategiko horretan, arreta soziosanitarioa koordinatzeko erronka handienetako batzuk identifikatu dituzte: **elkarreragingarritasuna** edo nola eskuratu bi sistemetako profesionalen artean partekatutako informazioa –edo nola lagundu eskuratzen– (7. galderari emandako erantzuna: informazioa elkarreragingarria izateko eta informazioa partekatzeko aukera emango duten prozedurak garatu daitezkeen lortzea (adibidez: mendekotasunaren eta desgaitasunaren balorazioan); **sistemen eta profesionalen arteko komunikazioa eta laguntza- nahiz komunikazio-fluxu eraginkorren diseinua eta funtzionamendua** (7. galderari emandako erantzuna: osasun-eremuko eta gizarte-eremuko profesionalen artean komunikazio-kanal egonkor eta arinak zehaztea; bi sistemek elkarrekin egitea plangintza, baliabide eta programa soziosanitarioei dagokienez; lurralde historikoen artean esperientziak partekatzea, bilakaera eta ideiak partekatzeko, ekitate handiagoa egon dadin eta abar); **profesionalen ahalduntzea eta aitortza, arreta soziosanitarioak arrakasta izateko giltza gisa** (7. galderari emandako erantzuna: agenteen parte-hartzea dinamizatzea, informazioaren hartzaila hutsak izateari utz diezaioten, eta sortutako lantaldeak dinamizatzea); **baliabideak edukitzea** (agendako denbora) kasua modu partekatuan kudeatu ahal izateko (7. galderari emandako erantzuna: Osasuneko eta Gizarte Zerbitzuetako profesionalen agendetan kasuak kudeatzeko ezarrita dagoen denbora edukitzea); **kultura partekatua sortzea** (15. galderari emandako erantzuna: profesional guztiek hizkuntza bera hitz egin dezaten lortzea) edo **koordinazio soziosanitarioaren egituren funtzionamenduan elkarreragingarritasun handiagoa lortzea, baliabide egokiekin** (7. galderari emandako erantzuna: EUDELekin jarduteko esparru bat garatzea, Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren babespean, esku-hartze soziosanitarioa EAE osoan erraztu dadin, modu esplizituan eta erakundeen eta udalerrien artean sinatutako esparru-protokoloetatik harago (esparru-protokoloak oso neketsuak dira, egiteko zailak dira eta).

Gobernantza soziosanitarioa hedatzeko prozesuan izandako **lorpenei** dagokienez, erantzunik zehatzenek aipatu dute *abiapuntu komun batetik* (8. galderari emandako erantzuna) **eratu direla kontsulta- eta partaidetza-organoak, eta halaxe izendatu direla, era berean, koordinazio-figurak**. Beste erantzun batzuetan, berriz, honako hauek egiteko aukera eman duten elementu eragileak aipatu dira: gobernantza soziosanitarioa hedatzeko zereginak eta kronogramak zehaztea, hedapen-lanean laguntzeko materialak egotea, eta abar. Alabaina, bereziki aipatu behar dugu kontsultatutako profesionalak begi onez ikusten dutela Osasun Mentaleko Sareetako profesionalak kontsulta- eta partaidetza-organoetan sartzea eta osasun mentaleko profesionalak Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioetako kide izateko izendatzea.

Izan ere, **osasun mentalaren, desgaitasunaren eta mendekotasunaren eremuei arreta berezia eman behar zaie, arreta soziosanitarioaren koordinazioa hobetu nahi badugu** (6. galderari emandako erantzuna: *koordinazioa hobetzea desgaitasun intelektuala dutenentzako arreta soziosanitarioan; koordinazio-guneak sortzea nahasmendu mental larria duten pertsonentzat, ESletako Psikiatria Zerbitzuak, Osasun Mentaleko Sareak eta Gizarte Zerbitzuak lotzeko; mendekotasunaren eta desgaitasunaren balorazioaren inguruko alderdietan komunikazioa hobetzea*; 7. galderari emandako erantzuna:

proiektu soziosanitario komunak egitea osasun mentaleko zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen artean (adibidez: bizitza independenterako laguntzak garatzea)).

Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaz **informatzeko, publizitatea emateko eta komunikazio- eta dibulgazio-lan** orokorretan parte hartzeko diseinatu eta egin dituen lanen **balorazioak, batez beste, 6,7ko nota** jaso du, eta horrek erakusten du hobetzeko tarte zabala dagoela kontsultatutako profesionalen ustez. Hedapen-lan horiek **hobetzeko alderdien** artean, informazioari, komunikazioari eta publizitateari dagokienez, honako gai hauek aipatu dira erantzunetan: Koordinazio Soziosanitario Autonomikoaren irudia txertatzea (gizarteremua); ESletako gerentziek hedapenean laguntzeko egiten duten lanaren garrantzia kontuan hartzea; Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioaren figura garatzea Eskualdeko Batzorde Soziosanitarioetan; eta foru-aldundietako eta EAEko udaletako gizarte-alarretan Gobernantza Dekretuari buruzko informazioa hedatzen jarraitzea. Hau da, **ZORTZIGARREN ONDORIOAK** iradokitzen duenez, **hobetu beharreko alderdiek indartu egingo dute goitik beherako komunikazio-estrategiaren baliagarritasuna**, eta **estrategia horrekin jarraitzea** bultzatzen dute, **Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua are gehiago txerta dadin erakundeetan.**

Dekretuari buruzko komunikazioa goitik behera garatzen jarraitzeko moduei buruz galdetzean, profesionalak adierazi dute Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak **informazio-, komunikazio- eta publizitate-arloko ekintza-formula osagarrietara** jo dezakeela kudeaketa-maila guztietan (13. galderari emandako erantzuna: *informazio-gida bat egitea eta kartelak editatzea; topaketak eta hitzaldiak antolatzea eta informazio-pilulak egitea; informazioa ahoz helaraztea kudeaketa-maila guztietan eta interesdun guztiei*) edo maila batzuetan: **makro mailan**, Batzorde Tekniko Iraunkorraren lana indartzeko aukera planteatu da, baita hedapena kalitate-adierazleekin txerta dadila ere Kontratu Programaren ebaluazioan; *lurraldearteko topaketak sustatzea eta lurralde-mailan jarduera onak trukitzea eta lurralde-planteamenduen eta planteamendu estrategiko orokorren arteko iragazkortasuna hobetzea* (13. galderari emandako erantzunak); **mikro mailan**, aldiz, udalerrri guztietan Tokiko Osasun Mahaiak eratzea proposatu dute.

Amaitzeko, Gobernantza Dekretua hedatzeko jasotako laguntzei buruzko galderari emandako erantzunetatik sortu dugu **BEDERATZIGARREN ONDORIOA**. Erantzunak aztertuta ikusi dugunez, askotariko zereginak garatzeko ematen diren laguntzak mugatuak dira, bai laguntzak eskatutakoak direnean eta bai emandakoak direnean.

Batetik, baliteke ekosisteman parte hartzen duten agenteen artean ezagutza urria egoteak eragin izana dekretua hedatzeko abiapuntuan laguntza-sarerik ez egotea, baina baita agente batzuen inplikazioa txikia izateak ere. Ondorioz, agerikoa da **zer hobetu eta landu asko dagoela oraindik ere, ekosistema soziosanitarioan elkarlaneko harremanak ehuntzea nahi badugu: harreman horietan, komunikazioak, elkartasunak eta konfiantzak izan behar dute buru, Gobernantza Soziosanitarioko Dekretua hedatzea lortu nahi badugu.**

ONDORIOEN LABURPENA

1. Ez da behar den parte-hartzerik egon, ondorio sendoak atera ahal izateko. Hala ere, eta batez ere erantzun irekiko galderetan egindako iruzkin, balorazio eta iradokizun ugariari esker, honako gogoeta hauek egin ditzakegu:

2. Zer hobetu asko dago Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren ezagutza-mailan, dokumentu horixe izaki EAEko arreta soziosanitarioa koordinatzeko funtsezko esparrua.

3. Hauteman da erakundeek, eratutako organoek eta koordinazio-figunek ahalegintzen jarraitu behar dutela Gobernantza Soziosanitarioko Dekretua zabal hedatu eta ezagut dadin, sistema batean zein bestean lan eginez arreta soziosanitarioa posible egiten duten profesional ugarien artean.

4. Ikusi denez, nahitaezkoa da hedapen-prozesuko liderrek bere gain hartzea Gobernantza Dekretuaren berri emateko eginkizuna (hots, komunikazioan ere liderrak izatea), dekretuari buruzko informazioak hedatzen jarrai dezan eta mikro/asistentzia mailara irits dadin.

5. Gobernantza Dekretua arrakastaz hedatu ahalko da, baldin eta goitik beherako komunikazioa oinarriko profesional gehienengana iristen bada, Lehen Arreta Soziosanitarioko arduradunak dira eta.

6. Konpromiso, babes eta lidergo instituzionalak ere —haien inplikazioa— indartu behar dira dekretuaren alderdi giltzarriari buruzko informazioaren hedapenean.

7. Denbora beharrezko den baliabidea da organo bakoitzak bere funtzionamendu-oinarriak ezarri eta finkatu ditzen, kideek beren lan-kultura eta -dinamikak eratu ditzen eta konfiantza- nahiz komunikazio-lokarriak ehundu ditzen, ezinbestekoak baitira arreta soziosanitarioa koordinatzeko, maila edozein izanik ere.

**OSASUN SAILA**

Osasun Sailburuordetza
Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD

Viceconsejería de Salud
Dirección Atención Sociosanitaria

8. Hobetu beharreko alderdiek indartu egingo dute goitik beherako komunikazio-estrategiaren baliagarritasuna, eta estrategia horrekin jarraitzea bultzatzen dute, Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua are gehiago txerta dadin erakundeetan.

9. Agerikoa da zer hobetu eta landu asko dagoela oraindik ere, ekosistema soziosanitarioan elkarlaneko harremanak ehuntzea nahi badugu: harreman horietan, komunikazioak, elkartasunak eta konfiantzak izan behar dute buru, Gobernantza Soziosanitarioko Dekretua hedatzea lortu nahi badugu.

6. Gomendioak

Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuak lehenengo publizitate-fasea izan du, baina mugatua izan da, aintzat hartzen baditugu dekretua hedatzeaz arduratzen diren agenteen artean lortutako emaitzak. Beraz, azken batean, gomendio hauek emango ditugu:

- **Goitik beherako komunikazio-estrategiarekin jarraitzea, erakundeen konpromiso-ariketa modura, kudeaketa-maila eta lurralde-eremu guztietan arreta soziosanitaria posible egiten duten profesionalak Gobernantza Dekretuaren eta berorren inplikazioen berri izan dezaten. Lan hori kontsulta- eta partaidetza-organoetara zabaldu behar da, eta organo horien nahiz koordinazio-figuren lidergoan bermatu: organoak eta figurek ezinbesteko rola hartu beharko dute bere gain, dekretua hedatzeko prozesuko eta komunikazioko lider gisa.**

- **Erreferente soziosanitarioen figura ahalduntzeko ahaleginean jarraitu behar da, bai Osasun Sistemari, bai, bereziki, Gizarte Zerbitzuen Sistemari, dekretua oinarriko profesional gehienengana irits dadin: Lehen Arreta Soziosanitarioaz arduratzen dira, eta ezinbesteko figurak dira maila mikro/asistentzian koordinazio soziosanitaria eraginkorra izan dadin eta antolaketa-mailarekiko harremanak sendoak izan daitezten.**

- **Kontsulta- eta partaidetza-organoen funtzionamenduan aurrerapausoak eman behar dira; batetik, bi sistemetako profesionalak elkar ezagutzeko gune bihurtu daitezten (bereziki, antolaketa-mailan eta asistentzia-mailan), eta, bestetik, lan-dinamika eraginkor, efiziente eta kalitatekoak zehaztu eta finkatu daitezten, arreta soziosanitaria hobetzen laguntzeko: asebate gabeko premien detekzioan eta asebetetzean, baliabideen zehaztapenean eta horniduran, kasuen kudeaketan egindako jarduketari asistentzialen koordinazioari ematen zaion laguntzan...**

- **Informazio-edukiak hartzailaetara egokitu behar dira, komunikazio-kanal edo -euskarri egokiak erabiliz, Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua 2023aren amaierarako zabal eta benetan ezagut dadin.**

Eranskina

GALDETEGIA

Erantzunen konfidentzialtasuna eta anonimotasuna uneoro zainduko dira, baita galdegegaren emaitzak aztertu eta aurkezteko orduan ere.

- Otik 10era, **zenbateraino ezagutzen duzu** Gobernantza Dekretua (0: arrastorik ez; 10: zehatz-mehatz)?

Arrastorik ez 0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	Zehatz- mehatz 10
-----------------------	---	---	---	---	---	---	---	---	---	-------------------------

- Zeuren eragile zara Gobernantza Soziosanitarioan; zeuren **baduzu zeregina** Gobernantza Dekretua hedatzen. Zenbateraino zaude engaiatuta?

Batere ez 0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	Erabat 10
-------------------	---	---	---	---	---	---	---	---	---	--------------

Eta zuk egindakoak zer? **Zer lorpen egin duzu** Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren informazio, publizitate edo hedapenean?

- _____
- _____
- _____
- _____
- _____

Abian da gobernantza soziosanitarioko **kontsulta- eta partaidetza-organok** eratzeko prozesua. Gaur egun, zer **balorazio** egiten duzu hartaz?

Oso eskasa 0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	Bikaina 10
-----------------	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---------------

Eta nola **puntuatuko** zenuke gobernantza soziosanitarioko **koordinazio-figurak** izendatzeko prozesua?

Oso eskasa 0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	Bikaina 10
-----------------	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---------------

Gobernantza soziosanitarioaren egungo hedapen-maila ikusita, **zer** uste duzu hobetu daitekeela **epe laburrean**?

- _____
- _____
- _____
- _____
- _____

Eta **zer** hobetu daiteke **epe luzera**?

- _____
- _____
- _____
- _____
- _____

Zuk ikusi-ikasitakoa oinarri hartuta, gaur egun, prozesuaren **zer alderdi nabarmenduko** zenuke?

- _____
- _____
- _____
- _____
- _____

Badira gauza batzuk **Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak egin dituenak Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua azaltzeko eta hedatzeko**. Ekintza horiek **lagungarriak** izan al zaizkizu dekretuaren hedapenaren informazioa emateko, haren publizitatea egiteko edo hartan parte hartzeko?

Laguntza hutsala 0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	Erabatekoa 10
-----------------------	---	---	---	---	---	---	---	---	---	------------------

Jarraian, **Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzaren** ekimen batzuk dituzu. Zein gertatu zaizkizu **erabilgarriak**?

- Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua hedatzeko estrategia
- [Euskadi Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua. Komunikazio-Gida](#)

Banatu duen barne-dokumentazioa

Beste batzuk (zehaztu):

- _____
- _____
- _____
- _____
- _____

Eta Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak egin dituen **komunikazio-ekintza horietatik**, edo Gobernantza Dekretua hedatzeko burutu dituen jardueretatik, zeintzuek izan dute **eraginik eskasena**?

- _____
- _____
- _____
- _____
- _____

Zure iritziz, **Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak zer hobetu beharko luke Gobernantzari buruzko Dekretuaz informatzeko, haren publikitatea egiteko eta hura hedatzen jarraitzeko**?

- _____
- _____
- _____
- _____
- _____

Eta, horretarako, **zer egin dezake/egin behar luke**?

- _____
- _____
- _____
- _____
- _____

Izan al duzu **beste eragile batzuen laguntzarik** Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren informazioa biltzeko, haren publikizatzea egiteko edo haren hedapenean parte hartzeko?

Bai

Ez

ED/EE

Erantzuna baiezkoa baldin bada, identifikatuko dituzu laguntza eman dizuten antolakundeak edo erakundeak?

- _____
- _____
- _____
- _____
- _____

Azkenik, zure ustez, epe labur eta ertainean nagusiki zer erronka izango ditugu Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua hedatzeko?

- _____
- _____
- _____
- _____
- _____

Nahi al duzu iruzkinik egin galdetegi honetako gaiei buruz edo Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren informazio-, publizitate- eta hedapen-prozesuari buruz? Hemen duzu aukera:

Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzaren izenean, eskerrik asko galdetegi hau betetzen laguntzeagatik.

Tarteko ebaluazio honen emaitzak iristen zaizkugunean, gomendioak egiteko erabiliko ditugu, eta, azken batean, Euskadiko Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretua hedatzeko abian den prozesuan hobekuntzak egiteko.